

**Ostegunean, azaroak 27, bigarren tailerra Gorlizko herritarrek Hiri Antolamenduko Plan Nagusiari ekarpenak egin diezazkioten.**

**Oraingoan, aurreko tailerren parte hartu zuten pertsonekin batera, herritarren iritziz HAPNn aldaketaren bat izan dezaketen espazioetara joango gara.**

Irteteko topalekua: **Sertutxena** (Eloisa Artaza, 1)  
Orduetgia: 10:00etatik 14:00etara.

**Zuzenean parte hartzerik ez baduzu**, zure eskaerak eta iradokizunak helbide elektronikoko honetara ere bidal ditzakezu: **participacionPGOU@gorliz.net**, eta Udaletxean ipinitako iradokizun-postontzian ere sar ditzakezu.

### **Zer da Hiri Antolamenduko Plan Nagusi berria?**

Gorlizko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren (HAPN) berrikusketa hasi du. Gure udalerraren garapena antolatzen eta planifikatzen duen tresna da HAPNa, eta arlo hauetan eragiten du: etxebizitzan, hiriko biziberritze eta berrikuntzan, lurzoru berrien okupazioan, jarduera ekonomikoan (nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera barne), espazio libreetan, udalerriko ekipamenduetan, irisgarritasun eta mugikortasunean (aparkalekuak barne) edo ingurumenean.

Hasierako fase honetan bereziki garrantzitsua da zure parte-hartzea, guztiok eraiki nahi dugun udalerraren ereduaren oinarriak finkatuko baitira.

### **Ba al duzu Hiri Antolamenduko Plan Nagusi berrirako ekarpenen bat? Nola helaraz diezagukezu?**

Hala bada, Gorlizko Udalak aukera ematen dizu udalerrirako Hiri Antolamenduko Plan berria diseinatzeko orduan zure iritziz kontuan hartu behar ditugun hobetu beharreko arloak, beharrak, ekarpenak... helarazteko.

Horretarako, parte-hartze prozesu bat hasi behar dugu, hainbat tailerren bitartez jada ditugun hirigintzako guneentzat zein gune berriak eraikitzeko dituzuen proposamenak ezagut ditzagun.

#### **Hiru tailer:**

**1. tailerra: azaroak 14. Itxaropenak doitzea eta guneak identifikatzea (2 ordu).** 17.00etatik 19.00etara Sertutxenan.

- Testuinguruan jartzea. Zer da eta zer ez da?
- Ekarpenak identifikatzea

**2. tailerra: azaroak 27. Irteera taldetan (4 ordu).** 10:00etatik 14:00etara  
Ibilaldia identifikatutako toki/guneetan. Ibilbidearen irudiak hartzea.

**3. tailerra: abenduak 4. Ekarpenak eta hobetzeko proposamenak identifikatzeko prozesua amaitzea (2 ordu).** 17.00etatik 19.00etara Sertutxenan.

- Egindako argazkiak eta prestatutako fitxak aurkeztea taldean aztertzeko.
- Hobetzeko proposamenak.

**Nork egin ditzake HAPNrako ekarpenak?**

Gorlizen bizi diren pertsona guztiek helaraz ditzakete ekarpenak, elkarte bateko kideak izan edo ez.

**¡ANIMATU ETA HARTU PARTE!**